

II. ERANSKINA

ALDIZKAKO AZTERKETEI DAGOZKIEN IAT-KO TARIFAK

Ibilgailu mota	Tarifa (BEZa barne)
1. KATEGORIAKO IBILGAILUAK (Motozikletak, ziklomotorrak eta motoredun ibilgailuak, gehienez hiru gurplekoak)	20,50 €
2. KATEGORIAKO IBILGAILUAK (Turismoak, kuadrizikloak eta 3.500 kg-ra arteko BGMa duten zama-ibilgailuak)	37,95 €
3. KATEGORIAKO IBILGAILUAK (3.500 kg-tik gorako BGMa duten zama-ibilgailuak, eta pertsonak garraiatzeko diren eta bederatzi plaza baino gehiago dituzten ibilgailuak)	56,05 €
ATOIAK ETA ERDIATOIAK	32,45 €
TRAKTOREAK ETA NEKAZARITZAKO MAKINAK	32,45 €

Azterketa-tarifari dagokionez, kuadrizikloak ibilgailu arintzat hartuko dira.

IAT ZIGORRAK

ITV-IAT estazioetan ez zaie zigorrik jartzen ibilgailuei azterketara garaiz kanpo bertaratu izanagatik. Zigorrak uztailaren 19ko 17/2005 Legean araututa daude eta trafiko-polizari (Ertzaintza, Guardia Zibila) dagozkio.

--- Zegokienean IAT egin ez duten ibilgailuak:

Gertakari hori hutsegite larritzat jotzen da. Gaur egun, honako zehapen hauek aplikatzen dira:

- Motozikletak, turismoak, ziklomotorrak, kuadrizikloak, quadak eta ibilgailu bereziak...100 €
- 3500 kg arteko kamioiak, atoiak, erdi-atoiak eta furgonetak150 €
- 3500 kg-tik gorako kamioiak eta autobusak.....200 €

Trafiko-poliziak zirkulazio-baimena atxikitzen du, eta epe bat ematen du IAT azterketa gainditzeko.

Azterketa emaitza positiboarekin gainditutakoan, zirkulazio-baimena berreskura daiteke aldez aurretik azterketaren txostena aurkeztuta.

--- Anomalia larriekin eta IAT txartela estazioan atxikita dutela dabiltzan ibilgailuak:

Ibilgailua anomalia larriak direla-eta errefusitzen badute, konponduko duten tailerrerraino soilik ibili ahalko da.

Hutsegite oso larritzat hartuta dago, eta 301-1.500 €-ko zigorrak aplikatuko dira, ibilgailuaren erabileraren arabera.

Ibilgailua ibilgetu eta zigilatu dezakete; kasu horretan, zigilua hausteko Agindu bat lortu beharko da ibilgailua konponduko duten tailerrera eramateko, eta ondoren azterketara joateko.

--- Lehen azterketan errefusaturiko eta bigarren azterketara eraman gabeko ibilgailuak:

Lehen azterketan errefusatu denetik kontatzen hasita 60 eguneko epean, estazioak ibilgailuari baja emateko eskaera egingo dio trafiko-arloan eskuduna den erakundeari.